

ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

Errentaren gaineko zerga

Frantzian errentaren gaineko zerga tasa zuzeneko zerga da. Urtero pertsona fisikoen errentaren gainean ordaintzen da eta progresiboa da (errenta tarteka). Familia osatzen duten pertsona kopurua kontuan hartzen duen zerga da.

Zerga, Frantzian egoitza fiskala duten pertsona fisikoen soldata, pentsio eta erretreta, kapital higigarri eta higiezinaren etekin, partikularren gainbalioa, merkataritzakoak ez diren irabazi, industria, merkataritza eta laborantzako irabaziei aplikatzen zaie .

Ordaindu beharreko zerga errenta osoa zatitzen duten tarteetako batean kalkulatzeko da. Zergapeko errenta oso horri gastu kengarriak (elikadura pentsioak,...) eta legeko beste gastu batzuk (adineko pertsonak, elbarritasun egoerak,...) kentzen zaizkio.

Orduan hasten da Errentaren gaineko zergaren kalkulua. Lehenik eta behin, familia osatzen dutenen zatiekin (familia koefizientea) zatitzen da. Gero baremoa aplikatu eta azkenik kengarriak (langile bat etxean edukitzea, etxebizitzan egindako obrak, haurren zaintza,...) kentzen dira. Honela lortzen da ordaindu beharreko zerga.

Berrian bizi naiz eta
Euskadin edo
Nafarroan lan
egiten dut

ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

Zerga sistema: aplikatuko den tasa errenta garbi zergapekoaren baremoan agertzen da.

Errenta garbi zergapekoaren baremoa (€)	Tasa (%)
Otik 9 807€ra	0 %
9 807 €tik 27 086 €ra	14 %
27 086 €tik 72 617 €ra	30 %
72 617 898 €tik 153 783 €ra	41 %
153 783€tik gora	45%

Iturria: Frantziako zerga administrazioa

2018ko abuztua